



ONDARROAKO
UDAL EUSKARA
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2013/6
Eguna: 2013-11-19
Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:30
Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Ana Alvarez	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Itsasne Murillo	Txomin Agirre ikastola
Asier Alkorta	Hitza egunkaria
Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Ibon Aginaga	Lea-ArtiBai Euskarari elkarteko ordezkaria
Eladino Gonzalez	Osasun Zentroko burua (batzarra amaitu aurretik joan behar izan du)
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Euskara Sutatzeko plangintzan parte hartzeko prozesuaren balorazioa.
3. Euskara egunerako proposamenak:
 - a) Adierazpen instituzionala
 - b) Ekintza komun posibleak
4. Herri hizkeraren gaineko ekintza-proposamenak.
5. Eskualdeko Euskara Batzordeko gaiak:
 - a) Hitzari proposamena
 - b) Udalaren jarrera dekalogo
6. Udal Euskararako aurrekontu-aurreikuspena 2014rako.
7. Euskararen Jatorria elkarteak euskararen jatorriari buruzko hitzaldi bat emateko proposamena.
8. Eskariak eta galderak.



Batzar-zk.: 2013/6
Eguna: 2013-11-19
Hasiara-Amaiera: 18:35 - 20:30
Tokia: Batzar-gela 2

Esan-eginak:

Batzordeburuak eta Idazkariak azaldu dituzte gaiak.

2. Euskara Sutatzeko plangintzan parte hartzeko prozesuaren balorazioa

Batzordekideek, oro har, ondo baloratu dute eta azpimarratu dute dinamika ona izan dela, ekarpen balekoak jaso direla eta parte hartu dutenek gustura egon zirela esan dute.

Batzordeburuak azaldu ditu hemendik aurrerako pausuak. Ekarpen guztiak plan batean bildu eta gero aurkeztu behar zaizkiela parte-hartze prozesuan parte hartu dutenei eta lehentasunak finkatu, hau da, jasotakoa kontrastatu nahiko lukeela prozesuan parte hartu dutenekin.

3. Euskara egunerako proposamenak:

c) Adierazpen instituzionala

UEMAko herri guztietan proposamen bera egin da. *Arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu* izenburua duen adierazpena alegia. Testua, batzar honetako gai-zerrendarekin batera banatu zitzaizen batzordekideei.

Bozketa egin da eta EAJren ordezkariak azaldu du bere abstentzioa, izan ere, ez baitaki bere alderdiak beste mozioren bat proposatuko ote duen euskararen egunerako.

d) Ekintza komun posibleak

Alde batetik, zerbait komuna egin ote litekeen aztertu da, baina, honezkero, ikastetxe bakoitzak bere ekintza pentsatua du eta ez da ikusi horretarako aukerarik.

Bestetik, Lea-ArtiBai Euskarari elkarteko ordezkariak euskararen egunerako *euskaraz bizi nahi dut* lemadun banderolak berak lortu ahal dituela esan du, nahi duenak balkoietan ipintzeko. HITZAkoekin berba eginda dagoela horren berri zabaltzeko. Eta epe bat eman dute (azaroak 27) erosi nahi duenak enkarguz erosteko (3 € banderolako). Ikastetxeetako ordezkariari ondo begitandu zaie eta esan dute ikastetxean galdetuko dutela. Ibon Aginagak bere posta elektronikoa eman du nahi duenak bertara idatzi eta esateko zenbat banderola nahi dituen.

Batzordeburuak proposatu du, iaz egin zen bezala, aurten ere egin litekeela du Ondarroako esaerarik ederrena proposatzeko txapelketa bat. Herritarren artean zabalduko da esaerarik ederrena proposatzeko aukera, eta gero, parte hartzaileen artean afari bat zozketatuko da. Ontzat hartu da proposamena.



Batzar-zk.: 2013/6
Eguna: 2013-11-19
Hasiara-Amaiera: 18:35 - 20:30
Tokia: Batzar-gela 2

4. Herri hizkeraren gaineko ekintza-proposamenak.

Idazkariak esan du aurten ere jardunaldiak egitea aurreikusita zegoela, baina gaiari behar den moduan heldu ezinik, azkenean, ez da ezer egin.

EAJren ordezkariak esan du kontuan izan behar dela herri hizkera sustatzeak Ondarroarekin bat egiten duela guztiz; alegia, Ondarroa eta herri hizkera baino sinonimo handiagorik ez dagoela.

Idazkariak esan du aztertu beharko litzatekeela herri hizkera lantzeko dagoeneko eginda dauden lan guztiei probetxua nola atera. Bere ustez, irudia eta ahotsaren bidez lantzeko materiala izan beharko litzateke.

Ontzat hartu da proposamena.

5. Eskualdeko Euskara Batzordeko gaiak:

Lea-ArtiBai Euskarari elkarteko ordezkariak eman ditu azalpenak eskualdeko batzordean aztertutako gai hauei buruz:

- a) **Hitzari proposamena:** Lea-Artibai eta Busturialdeko HITZA bilakatu denez geroztik gertuko herritarrengandik pixka bat aldendu dela atzeman da eta hori nola hobetu litekeen adierazi nahi zaie HITZAko kideei, tartean, alderdi ekonomikoan, Udalek diru gehiago ipintzea eta, bestetik, kalitatean nola eragin litekeen. Hausnarketa bat proposatzen da gauzak argitzeko: zelako HITZA nahi dugun, zenbat diru behar den horretarako, zenbat harpidedun dauden, zenbatek baja eman duen...
- b) **Udalaren jarrera dekalogoak:** Eskualdeko Udal guztiek bere egitea da helburua, horrela elkarren babesarekin hainbat lekutan indartsuago eragiteko; adibidez, Osakidetzan, Aldundietan, azpikontratutako zerbitzuetan... Hainbat puntu ditu dekalogoak, hala nola:
 - Udaleko batzordeak euskera hutsez izatea, udaleko langileek euskera hutsez egitea.
 - Osakidetzagaz adostu eskualdera datozen mediku-erizain... guztiak (ordezkoak ere bai) euskaldunak izatea.
 - Kontratazioetan euskara irizpideak bateratu, zerbitzua euskaraz eman dezaten eta eskualde modura erabakia publiko egin.
 - Gure udalak euskera ofiziala dan lekuetako administrazio publikoekin (diputazioak, udalak...) euskera hutsez (ahoz zein idatziz) aritzea.

- Komunikazio protokoloa: Komunikabideak (berdin da euskaldunak ala erdaldunak izan) udalera zuzentzen direnean, eskualdeko herrietako ordezkariak euskara hutsez egitea.

6. Udal Euskararako aurrekontu-aurreikuspena 2014rako.

Batzordeburuak eman ditu azalpenak gai honi buruz:

2014 aurrekontuan diru-sarrerei eustea lortuko bada, ondo bidean joango da dena; baina, hala ere, diru-banaketa honela egingo da: lehenengo pentsatuko da zer nahi den egin herrirako eta gero banatuko da batzordeek behar dutena. Banaketa egiteko dago oraindik, baina bera, dena den, saiatuko da, alde batetik, orain artekoari eusten dauden daudenean: Augustin Zubikarai Nobela saria, UEMA, Hitzarmenak Aeka-rekin, Hitzarekin eta Lea-ArtiBai Euskararekin, eta diru-laguntzak deialdiak (elkarteei, euskara ikasleei eta merkataritzari); beste alde batetik, mantenduko dira egitarau batzuk, hala nola, Literatur Amuak, Liburuen Amuak eta Idazlan Rallya, baina horiek izan lezakete murrizketarik eta, azkenik, aurreikusi nahi du diru-kopuru bat Euskara Sustatzeko Plangintzako ekintzak bideratzeko.

7. Euskararen Jatorria elkarteak euskararen jatorriari buruzko hitzaldi bat emateko proposamena.

Azaldu da eskaintza.

8. Eskariak eta galderak.

Osakidetzako Osasun zentroko arduradunak azalpenak eman dizkigu bertako euskararen egoerari buruz.

- Familiako 6 medikuek euskaraz egiten dute.
- Etorri diren titular berriak denak euskaldunak dira.
- Plantilla osoan erizain erdaldun bakarra dago.
- Larrialdietan dagoen taldearen egoera hau da: 4 ekipo daude, bakoitza bere mediku eta erizainaz osatua, mediku guztiak euskaldunak dira, baina administrazioan 4 langile daude eta ia guztiak erdaldunak dira (batek euskaraz zerbait egiten du, baina ez da ondo moldatzen).

	Astelehena	Martitzena	Eguaztena	Eguena
Erizaina	E	G	E	E
Administraria	E	G	G	G
Medikua	E	E	E	E

- Epe motzera begira (hiru edo lau urte barru) jubilatuko dira dauden langile erdaldunak.
- Euskaraz egindako erreklamazioak euskaraz erantzuten dira.
- Oro har, euskaraz komunikatzeko arazoa egotekotan, larrialdi zerbitzuan dago.

ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2013-09-25koa.
- Onartu da, gehiengoz onartu ere, *Arnasguneak hedatuz, etorkizuna landu* izenburua duen adierazpena eta Udalbatzari helaraziko zaio erabaki-proposamen hau:

...

Ondarroako Udalak, 2013ko abenduaren 3an, euskararen egunean, honako adierazpen hau plazaratu nahi du:

- *Ondarroan euskara nagusi denez, hizkuntza politika ausart eta aurrerakoiak garatzeko baldintzak daude. Udalerri euskaldunok lege babesa eta baliabideak behar ditugu aurrerapauso sendoak eman ahal izateko.*
 - *Udalerri euskaldunek euskararen arnasmunerik zabalena osatzen dute. Eta, beraz, ezinbestekoa da Ondarroa bezalako udalerriek euskararen geroan jokatzeko duten paper garrantzitsua aitortzea.*
 - *Gure herria euskarari dagokionez erreferentziazko udalerria dela jakinda, konpromisoa hartzen dugu Ondarroan garapen sozioekonomiko eta soziokulturalak zein bestelako proiektuek sor dezaketen eragin soziolinguistikoa kontuan hartzeko.*
 - *Euskararen aurkako erasoekin amaitu behar da. Hainbat udalek onartutako hizkuntz irizpideen aurka jarritako helegiteek, esaterako, kalte nabarmena egiten diote euskararen normalizazioari.*
 - *Ondarroako Udalak, herriko eragile eta norbanakoekin elkarlanean, euskararen aldeko lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.*
- Euskararen egunerako *euskaraz bizi nahi dut* banderola erosi nahi duenak (3 € banderolako) azaroak 27ra arteko epea dauka Ibon Aginagari bere posta elektronikora mezu bat bidaltzeko.
 - Euskararen egunerako Ondarroako esaerarik ederrena txapelketa antolatzea.
 - Herri hizkera lantzeko materiala sortzeko deialdia egitea eta horretarako Baldintza Teknikoak idaztea.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey